

298. alea - 2024ko iraila  
Debako herri aldizkaria

Zuhertza  
M.K. Deba euskara  
elkartea

# Berriketan

AMAIA IRIONDO • Aktore eta sortzailea

## Jendurrean zein agertokiaren atzealdean eroso dabilen artista

**Berriketan .eus**  
 parte hartu  
 parte izan

**adats**

**ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA**  
 Hondartza kalea 13 DEBA  
 T. 943 19 27 00

[www.facebook.com/adatsileak](https://www.facebook.com/adatsileak)  
 @adatsileak

**URDAITEGIA  
 AITTOLA  
 HARATEGIA**

Astillero, 3  
 Tlfnoa.: 943 191 776  
 20820 DEBA

Halal harategia  
 Fruta-denda / Supermerkatua

**Razan**

943 574 710 / 688 749 337  
 Sokagin, 2 behe. DEBA

**Urlo**

Aholkularitza  
 Komunitateen  
 kudeaketa  
 Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • [urlo@urloasesoria.eus](mailto:urlo@urloasesoria.eus)  
 Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

*janire & maitane*  
 ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

**Zumardi**

pentsioa

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)

**ARENA BAR**

**IZERBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**ORAIN**

ileapaindegia

943 19 21 09  
 Hondartza kalea, 2  
 Deba

**LAMARIANO**  
 Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
 943 19 12 52

Odontologoa  
 MAITENA ARRIZABALAGA

Odontologoa  
 NORA UNZETABARRENEXEA

HORTZ KLINIKA

**mm**

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz 943 830 424 - 653 921 712

**Argazkilaria**  
 Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
 photoshop-eko erretokeak...)

[andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)  
 Tel: 685 703 843



# BERRIKETAN

## 298

2024ko iraila

**Azaleko irudiaren egilea:**  
Nerea Bedialauneta Alkorta

## AURKIBIDEA



**11 ALBISTEAK**  
Udazkenean sartzarekin bat, badator beste behin ere Debako Euskal Jaia



**12 ALBISTEAK**  
Debasket Saskibaloi Klubak emakume helduen taldea osatu du estreinakoz



**16 ELKARRIZKETA**  
Amaia Iriondo Lozanorekin solasean, bere ibilbide artistikoa hizpide hartuta



**20 KOLABORAZIOA**  
Elizako sakristiako berritze lanei buruzko lekukotza eman nahi izan du Iñaki Elosuak



**23 ELKARRIZKETA**  
Orain artean egindako bideaz eta aurrera begirako asmoez aritu da Aitor Huergo musikaria



**28 AGENDA**  
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

**Zuhatz** euskara  
www.deba elkarte

**Berriketan**

### LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

### ARGITARATZAILEA

Zuhatz Euskara Elkartea

### HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)

### TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

### HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@zuhatz.com

### ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatz.com

### ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta

eta Alex Turrillas

### KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

### PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

### LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

### MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

### TIRADA

1.400 ale

### MAIZTASUNA

Hilabetekaria

### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

### LEGE GORDAILUA

SS/246/200

ISSN: 2171-7656

### Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatz.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak



## Palestinako erresistentzia babestu. Israeli eta bere konplizeei aurre egin!

Urriaren 7an urtebete izango da palestinarren erresistentziarik kontraerasora jo eta Israelgo estatu sionistak aurrekaririk gabeko oldarraldia hasi zuenetik. Orduetik, 40.000 palestinarrak inguru erail dituzte sionistek eta milaka izan dira zaurituak, desagertuak zein kanporatuak.

Estatu sionistaren jatorria ulertzeko XIX. mendeko Europara egin behar dugu atzera. Garai horietan, uzta txarra, izurria edota beste kalterik izanez gero, kristauek errua judutarrei egozten zieten eta funtsik gabeko akusazio xenofoborik bidea irekitzen zioten judutarren aurkako sarraskiari eta arpilatzeari. Horiek horrela, mendeetan zehar jasandako antisemitismoaren aurrean, 1896an Theodor Herzlekin Palestinako lurra erosi eta kolonizatzekeo ideia zabaldu zuen bere idatzietan eta, horren ondorioz, areagotu egin ziren judutarren migrazio boladak Palestinako lurretara.

Nazio Batuen Erakundeak bitan banatu zituen Palestinako lurra 1947an; %43 palestinarentzat eta %57 sionistentzat. Banaketarekin desados, arabiarrek palestinarren eta sionisten arteko gerra hasi zuten, baina 1948an israeldarrek Israelgo Estatuaren independentzia aldarrikatu zuten. Orduetik, Israelgo Estatuak palestinarren errekurso naturalak ustiatu, lurra konfiskatu eta asentamendu kolonoak ezarri ditu.

Maila internazionalen bultzatutako bake akordioek erresistentzia palestinarra isilarazteko eta apaltzeko balio izan dute soilik, bakearen izenean Israelen izaera genozida ezkutatu. Genozidio hau, aldiz, sistema kapitalistaren basakeriaren adierazpen goren da.

Genozidioa salatu, palestinarren erresistentzia babestu eta mendebaldeko potentzien konplizitatea gaitzesteko, batu Palestinarekin Elkartasuna plataformak urriaren 5ean Bilbon egingo duen mobilizaziora!

**Kontseilu Sozialista Deba Bailara**



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



*Seven Clovers*  
Irish pub

943 191 295



**A D**  
Asesoria Deba

**Eskerrik asko!**



**Berriketean .eus**

albisteak iritziak agenda mediateka





MARI SEARA

## Tabuen kutxa

Minbiziaz aritu ginen inurriok Iturri Ondoan. Tabuen Kutxa zabaldu eta hainbeste kostatzen zaigun gai hau oholtzara ekarri nahi izan genuen, herritarrekin honen inguruan izan ditugun bizipenak partekatzeko asmoz.

Gure gorputz zaurituak oholtza gainean, filtrorik gabe. Gorputz ez normatiboak, gizarteak eskatzen duen edertasun kanon horietatik kanpo daudenak. Baina nola ikusten ditugu oraindik neurri zehatz horietan sartzen ez diren gorputzak? Zer da edertasuna? Gorputz idealik badago?

Minbiziak gorputzari begiratzeko beste aukera bat eman dit eta egoera ez normatibo honen baitan edertasuna ikusten hasi naiz. Urtero Inurriko kideok egutegi batean azaltzen ditugu gure gorputzak eta zer pentsatua ematen dit nire gorputza den bezalakoa azaltzeagatik ausarta naizela esaten didatenean.

Zabal dezagun gorputz ez normatiboen kutxa. Zer da gorputz normatibo bat? Zein neurritan sartzen da? Nork esaten du horiek direla neurri egokiak? Zergatik? Zer suposatzen digu neurri horien baitan egoteko egin behar dugun esfortzuak? Osasuntsu egoteko egiten dugu?

Zenbat dieta, kirol eta ekintza egiten ditugun neurri horien baitan egokitzeko helburuz... Balantzaren gainean jarri eta aurreko egunean baino zenbaki handiagoa azaltzen digunean, zer sentitzen dugu? Eta horren ondoren ispiluan begiratzean nola sentitzen gara? Zenbaki horiek definitzen dute gure edertasuna?

Osasunaren mesedetan, gure bizitza duintasunez sostengatzen duen zenbakirik gabeko gorputz eder bat aldarrikatu dezagun behingoz!

**"Zer pentsatua ematen dit nire gorputza den bezalakoa azaltzeagatik ausarta naizela esaten didatenean"**



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**ZERBITZUAK:**

- \* Fisioterapia - Osteopatia
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Podologia
- \* Dietista

Leisundi, 14      943 19 24 42      sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

# Iritzi artikulua kezkarria eta akusazio bidegabeak

DEBAKO GAZTE ASANBLADA (DGA)

**D**uela aste batzuk Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratu zen idatzi baten harira, beharrezkoa ikusten dugu Debako Gazte Asanbladaren izenean erantzun bat ematea.

Herriko gazte talde baten kezka eta ezinegonetik sortu zen Debako Gazte Asanblada duela hogeita lau urte, herrian alternatiba bat sortzeko asmoz eta mundua ulertzeko beste modu batetik abiatuta. Ordutik gaur arte, gaztetxea sutondo bihurtu eta hamaika borroka, ekintza eta proiektu eraman ditugu aurrera: hitzaldiak, pelikulen proiektzioak, janari bilketa solidarioak, liburu aurkezpenak, kontzertuak, tailerrak... Azken ikasturtean, konkretuki, ekintza ugariaren lekuko izan da Debako Gaztetxea: hilabeteroko lan egun irekiak; DGAren urtemuga, urtero bezala herriko adin eta sektore desberdineko pertsonentzako egitarauaz osatua; hamaika estilotako kontzertuak; uztailean gaztetxe kanpoko terrazatxoan antolatu ditugun Asteazken Akustikoak; eta, nola ez, Palestinako herria sufritzen ari den genozidioa salatzeke egindako ekintzak eta palestinarrei helarazitako elkartasun keinuak.

## Konpromisoa eta lana

Horrez gain, DGA ere Txosna Batzordearen parte izanik, urteko plangintzan pisu handia hartzen du San Roke jaien prestaketak. Txosna Batzordearekin edota DGArekin harreman minimoa izan duen edonork daki espazio hauetan parte hartzeak zer konpromiso eta lan dakarren. Jaietan barran txandak egiteaz haratago, zumardian "bat-batean" agertzen diren txosnen atzean hainbat hilabetetako prestaketa lanak eta ardura garrantzitsuak daude. Txosnak kudeatzeaz gain, karpako kontzertuen eta bertso saioaren antolaketan parte hartzen dugu; eta, noski, Txosna Batzordetik aurrera eramaten dugun erasoen aurkako protokoloan ere bai. Gutxi batzuk gara



## "Jai eremu herriko bat denon gozamenerako sortu den heinean, denon esku dago horren presentzia bermatu ahal izatea"

ardura horiek gure gain hartzen ditugunak eta, herriko jaietako erreferentziazko gune hau sostengatzeko, benetan garrantzitsua da gazte kuadrillek eskaintzen duten laguntza. Txosnagunea bezalako jai eremu herriko bat denon gozamenerako sortu den heinean, denon esku dago horren presentzia bermatu ahal izatea. Eta bai, argi dago bertan parte hartzen dugun eragileon euskarri ekonomiko bat dela, kurso osoan egiten ditugun dinamikak aurrera eraman ahal izateko.

Abuztuaren 24an argitaratu zen iritzi artikulua kezkarria iruditzen zaigu, eta erabat bidegabeak dira asanbladaren aurka egiten diren akusazio eta suposizioak, baita horiek egiteko erabilitako lengoia ere. Herriko eragile gisa egiten zaigun errekonozimendu ezaz gain, mota honetako adierazpenak egin izana militantziak dakarren konpromisoaren ezezagutzaren ondorio dela iruditzen zaigu. Hau horrela izanik, edonork Gazte Asanbladaren edo Txosna Batzordearen funtzionamenduaren inguruan azalpenak behar izatekotan, zuzenean gurekin harremanetan jartzea eskatzen diogu ([debakogaztetxea@gmail.com](mailto:debakogaztetxea@gmail.com)).

Erasoak eraso, sinesten dugun gazteria antolatua aldeko borrokan lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu Gazte Asanbladatik. Horrelako espazioak gazte langileok bizi dugun errealtate gordina aldatzeko ezinbestekoak direla uste dugu eta, ideia horri helduta, Debako gazteei asanbladara batzeko deia luzatzen diegu. Aurrerantzean ere, Gaztetxean ikusiko dugu elkar!



JON ETXANIZ

## Lapurtutako izarrak

Udaren amaierarekin batera, nabarmena da egunak zenbat egin duen moztera. Argi orduak behera egin dutela esan ohi dugu, baina hau ez da guztiz zehatza gure gizartean. XIX. mende amaieran hiriguneak eta herriak argizatzen hasi zirenetik, amaierarik gabeko egun batean bizi gara.

Gainera, ez da gauak argiztatu ditugula bakarrik, eguneko eguzkiaren argi naturaletik ere aldendu egin gara. Etxeak eta lantokiak argizatzearekin batera, geroz eta ordu gehiago pasatzen ditugu pantaileri eta oro har argi urdinei begira. Gure eguneroko bizimodu honek ez gaitu eguzkitik bakarrik aldendu, gauaren iluntasunetik ere urrundu gaitu. Gauak ere geroz eta argiagoak dira gure hiriguneetan; izarrak ikusteko, adibidez, gure bizilekuetatik aldentzea besterik ez zaigu gelditzen.

Honek guztiak zertan eragiten digun hausnartzen dut... Argia oso eskura dugu momentu oro, eta horrek eragina du gure aktibitatean; hiperaktibitate gara, hain zuzen ere. Hala ere, honen aurrean badaude gure onurarako hartu ditzakegun neurriak: pantailen erabilera kontzientea egitea, batez ere gauetan ordu batetik aurrera; pantailetan jar daitezkeen filtroak eta aplikazioak ezartzea; LED argi zuri eta hotzaren ordez, argi gorria erabiltzea; argi urdinak blokeatzen dituzten betaurrekoak janztea eta egunez ahalik eta ordu gehien kanpo espazioetan egotea, besteak beste.

Argi artifiziala murrizteak eta egun argitan kanpoan ahalik eta denbora gehien egoteak nigan izan dituen onurak ikusita, gau izartsuak eta egun argitsuagoak opa dizkizuet.

**"Gure eguneroko bizimodu honek ez gaitu eguzkitik bakarrik aldendu, gauaren iluntasunetik ere urrundu gaitu"**

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa



**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**atari**  
INMOBILIARIA

943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**ieraenea**  
ekidenda

"maito ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Tel: 943 53 95 20- E-mail: [ieraeneda@gmail.com](mailto:ieraeneda@gmail.com)



**marruecos**  
viajes y tours

Neurrira egindako  
bidaia Marokora  
**607 76 11 46**  
[www.viajesytoursmarruecos.com](http://www.viajesytoursmarruecos.com)



## 1965eko maiatzaren 16an Debako Euskal Jaia

Hilario Allicak edo bere seme Antonek 1965eko maiatzaren hirugarren egandean egindako argazki hau Euskal Herriko efemeride esanguratsuen zerrendan sartzeko moduko dokumentu grafikoa da; Gerra Zibilaren ostean, frankismo garaian, Euskal Herrian egin zen bigarren Euskal Jaian parte hartu zuten herritarren iritsiera erakusten digu. Urtebete lehenago, 1964an, ospatu zen lehena; OARGUIk (Organización Artística Recreativa de Guipuzcoa) antolatu zuen, oztopo ugariri aurre eginez. Taldekideak urtebetez ibili ziren herriz

herri, euskaltzaleak bilduz eta Euskal Jaian parte hartzerantz animatuz.

Festari kutsu folklorikoa eman zioten agintarien begietara, beharrezko baimena lortzeko, baina, berez, euskara, folklorea eta oro har euskal kultura sustatzeko helburuz antolatu zen Euskal Jaia (debekatuta zegoen erregimen frankistan). Zazpi herrialdeetako dantza taldeak bertaratu ziren eta arrakasta itzela izan zuen: partaide kopurua urtebete lehenago (1964an) baino bost aldiz handiagoa izan zen. Tamalez, hirugarren Euskal Jaia, 1966koa, bertan behera laga zuen Gobernu Zibilak, ospatu baino egun bat lehenago. 33 urte beranduago (1998an) ospatu zen berriz ere Euskal Jaia Deban.

Alex Turrillas Aranzeta



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICIÓN:**  
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
 E-mail: asketa@telefonica.net  
 www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
 KALITATEA  
 Erroren Kopurua Nº 2 / 100 / 049  
 NIVEL 2



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095





ITSASO ARAMENDI

## AmatasunaK

Eurak ama ziren, ni ez; eurek bazekiten zer zen, nik ez. Zioten: "Aprobetxatu orain, gero ezingo duzu eta", "Ahaztu bidaiatzeaz..."... Ohartarazpen horien bidez ere, amatasun eredu bat jaso nuen haurdun nengoenean; aurreko guztia utzita, besteen zerbitzura jartzen den amarena.

Erdi ondorenean ere tematzen gara aholkuekin. Mundu guztiak daki nola dagoen erditu berri den ama eta zer behar duen haur jaio berriak. Nola lokartu, noiz duen hotza eta noiz beroa. Epaitu egiten gaituzte: "Berriz ere titian?", "Orain ere besoetan?". "Gainetik" ikuskatzen gaituzte. Eta bitartean amatasunaren zurrunbiloan murgilduta zaude. Laguntzeko "alboan" egotea nahikoa da.

Aurrenekoz amatu nintzenetik, zaintza jarri dut erdigunean; umeena, bikotearena eta nirea. Etxekoen beharrak eta nireak zaintzen saiatzen naiz. Askotan, ordea, ez dira bateragarriak. Oreka lortzea eguneroko erronka da, eta ahal dudana egiten dut. Nirea lehenesten dudanean, batzuetan, errudun sentimendua izaten dut, nire burua epaitzen dut, ama txarraren bizipena izaten dut; amatasun eredu bat baitut ikasia, besteengatik dena uzten duen amarena.

Agian deseraiki daiteke amatasun eredu hori amatasuna aske bizitzeko? Epaiak desaktibatzen? Amatasuna prozesu bakarra eta norberarena da. Desberdin bizi dugu amatzen garen bakoitzean. Amatasunak onartzetik has gaitzke. Kolore askotakoak dira. Eman diezaiola ama bakoitzak nahi duen kolorea bere amatasunari.

**"Agian deseraiki daiteke amatasun eredu hori amatasuna aske bizitzeko? Epaiak desaktibatzen? Amatasuna prozesu bakarra eta norberarena da"**

Taxi Alain

Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • [www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)



MAIEDER

hortz klinika

Eider Sampayo  
Maialen Linazasoro

Implanteak eta kirurgia  
Periodontzia · Endodontzia  
Estetika eta zuriketak  
Protesiak · Odontopediatria  
Azido hialuronikoa  
Aho-aurregi eta ATM alterazioak

Zarautz

Kale Nagusia 9-1  
943 13 32 69  
722 81 56 60  
dental@maieder.com  
www.maieder.com

# Hizkuntza helarazi eta harremanak sortu, jolasa ardatz hartuta

**AMAIA ZINKUNEGI ZIPITRIA** Udaleko euskara teknikaria

Etorri berri diren ikasleak euskarara hurbiltzeko eta herrikideen artean harremanak sortzeko helburuz, uda honetan egitasmo berri bat jarri dugu martxan Deban, ikastetxeekin eta guraso elkarteekin elkarlanean.

**A**zken urteetan ikasle dezente etorri zaigu atzerritik. Batzuk ikasturte hasieran etortzen dira eta aukera izaten dute, gutxi-asko, euskara ulertzen hasteko eta bertakoekin harremanetan sartzeko; eta zenbat eta txikiago izan, errazago egiten dute bide hori, eskola prozesuan denbora izaten baitute horretarako. Beste batzuk, ordea, ikasturte erdian edota bukaera aldera iristen dira eta horiek DBHko ikasleak badira, gehiago kostatzen zaie eskolan eroso ibiltzea, batetik, euskararik gabe, eskola edukiak ulertzea ezinezkoa egiten zaielako (eskolak ez du baliabide nahikorik horrelako kasuetan behar bezala erantzuteko) eta, bestetik, egituratutako lagun kuadrilletan tokia egitea zailago izaten delako adin horretan.

Hori guztia kontuan izanik jarri dugu egitasmoa martxan. Lehenik eta behin, eskoletako zuzendaritzekin bildu eta, ikasturte honi begira, euskara errefortzuak behar zituzten ikasleen zerrenda egin zen eta herriko jendearekin harreman sareak eraikitzeke moduak pentsatu.

Baterako zein besterako, oinarria jolasa izan behar zela adostu zen. Jolasaren bitartez lortu behar genuela hizkuntza haiei helaraztea eta jolasaren bitartez eraiki nahi genituela harremanak ere, kualitatiboki, jolasak eskaintzen baitu besteengana iristeko, besteekin jarduteko, talde kohesioa lortzeko zera errazago bat. Erronka ez zen makala: 16 ikasle horietatik, erdiek gutxi gorabehera ulertzen zuten euskara eta, egunerokoan, nola edo hala, moldatzen ziren. Beste erdiek, ordea, batere ez edo oso gutxi ulertzen zuten eta horien artean hizkuntza ezberdinak genituen: gaztelania, punjabia eta mongoliera. Beraz, hizkuntza kudeaketa oso konplikatu auzanga zela aurreikusten genuen; ingelesa ere erabili beharko genuela.

Tamaina horretako lanari aurre egiteko, kontratupean lan egingo zuten pertsonak behar genituela erabaki



**"Proiektuaren balorazio orokorra oso positiboa izan da, bai hezitzaileentzat, bai boluntarioentzat, bai parte hartu duten gazteentzat ere"**

zen. Egitasmoa guraso elkarteekin partekatu eta, haien oniritziarekin, 3 begirale kontratatu ziren egitasmoaren pisu nagusia eramateko. Horrez gain, saioetan parte hartuko luketen herritar boluntarioak, adinez ahalik eta gertukoena, lotzeari ekin genion. Horrela, egitasmoan, 16 ikaslek, 3 begiralek eta 14 boluntariok hartu dute parte.

## Ekimen baliagarria

Proiektuaren balorazio orokorra oso positiboa izan da, bai hezitzaileentzat, bai boluntarioentzat, bai parte hartu duten gazteentzat ere. Uztailean parte-hartzea etengabea eta sutsua izan da eta, horrek, inplikaturako guztien interesa eta konpromisoa erakusten du. Bestalde, dinamikak jatorri desberdineko gazteek osatutako taldearen aniztasunera egokitzeke beharra ikusi da eta horrek sortzaile izatera eta ikuspegi bakar batean ez gelditzera behartu ditu hezitzaileak.

Ekimena baliagarria izan da, ez bakarrik euskarara hurbiltzeko eta hizkuntzaren ezagutza hobetzeko, baita herrian lotura eta harreman berriak egiteko ere, herrikide izatearen sentipena ernalduz. Hala ere, argi dago ahalegin horrek jarraitutasuna eskatzen duela izandako onurak maximizatzeko. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu proiektu honek jarraipena izatea, hizkuntza ikasten ari direnak atzean gera ez daitezen eta elkarrekin bizitzeko prozesuan aurrera egiten jarrai dezagun.

# Dena prest iraileko azken asteburuan Deban ospatuko den Euskal Jairako



Irailaren 28an (larunbata) ospatuko dute herritarrek aurtengo Euskal Jaia, baina bezperan hasiko dira egitarauaren baitan antolatutako ekintzak. Zehazki, bi hitzordu izango dira aukeran hilaren 27an.

Batetik, Zuhatza-Kolore Anitzek antolatutako duen Euskal Makarroi Lehiaketak emango dio hasiera egitarauari; 17:30ean hasiko da, Plaza Zaharrean, eta aurrez izena eman duten LH1-LH6 bitartekoek parte hartu ahal izango dute lehian. Bestetik, iluntzean, Kalean Kantuzeko txanda izango da; 19:30ean irtengo dira kantuan.

Irailaren 28an, goizetik gauera arteko programazioa izango da. Eguneke lehen ekimena marmitako lehiaketa izango da, beste behin ere; Plaza Zaharrean jarriko dituzte partaideentzako mahaiak, 10:00etatik aurrera.

11:00etan, aldiz, Kalez Kale taldeko txistulariak irtengo dira kalera eta, 11:30ean, Zubietako joaldunek egingo dute kalejira. Dantzarako tartea ere egongo da;

12:00etatik aurrera, Gure Kai eta Musika Eskolako dantzari taldeko kideek girotuko dituzte herriko txokoak eta, 13:30ean, trikitilariak euskal musikaz eta bestelako doinuez beteko dituzte kaleak.

## 500 lagunetik gora

Aurreko urteotako dinamikari eutsita, Zuhatza elkarte arduratuko da Aldats pilotalekuan egingo den bazkari herrikoia antolatzeaz; 15:00etan izango da hitzordua eta bazkalostean musika eta jai giroa izango dira nagusi bertan, trikitilarien parte-hartzearekin. Besteak beste, gainera, Irrintzi Txapelketa ere egingo dute pilotalekuan, bigarren; arrakasta handia izan zuen iaz.

18:00etatik aurrera, buruhandiak ibiliko dira kalez kale eta ondorengo orduetan musika izango da protagonista. Lehenik, Que toque el de alao txaranga kalejiran irtengo da 19:00etan; gauean, berriz, Sukar taldearen erromeria izango da Foruen Plazan, 23:30ean.

## Urrian zabalduko dute Mintzalaguna egitasmoan izena emateko epea



Ikasturtea hastearekin batera, Euskal Herriko mintzalagunen taldeak ere martxan jarriko dira berriz. Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatzen du ekimena Deban, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, eta urrian zabalduko dute 2024-2025 ikasturterako izen-ematea.

Egitasmoaren funtzionamendua oso sinplea da: euskaraz ondo moldatzen den pertsona bat (*bidelaguna*), hizkuntza maila hobetu nahi duten bizpahiru lagunekin (*bidelariak*) elkartzen da. Maiztasuna, normalean, asterokoa izaten da.

Egitasmoaren arduradunek *bidelariak* ez ezik, *bidelagunak* ere gonbidatu dituzte ekimenean parte hartzera. Azpimarratu dutenez, euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko prest egotea dira parte hartzeko baldintza bakarrak. Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan, [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbide elektronikora idatzita edo [labur.eus/Zuhatza\\_Deba](http://labur.eus/Zuhatza_Deba) helbidean sartuta eman daiteke izena. Gogorarazi dutenez, herritar boluntarioei esker, doakoa da egitasmoa. "Informazio gehiagorako, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira".

## Emakume helduen taldea sortzea lortu du Debasket Saskibaloia Klubak, aspaldiko helburua beteta



Debasket Saskibaloia Klubak gutxienez talde bat gehiago izango du denboraldi honetan. Besteak beste, klubak emakume helduen taldea sortzea lortu du eta hori "berri pozgarria" dela nabarmendu du Roke Arantzamendi arduradunak. "Emakumeen kategoria batzuetan hutsune bat genuen lehen, baina helduen taldea sortuta eta kadete mailan zeudenak junior kategoriarira igota, katea osatu dugula esan genezake. Hau da, aurtengoa izango da kategoria guztietan emakumeen taldeak izango ditugun lehen urtea, kadeteak, haurrak eta saski eskolako neskatok ere kontuan hartuta".

Aurrez emakume helduen talde bat eratzeke saiakera egin zuten arren, ahaleginek ez zutela fruiturik

eman azaldu du Arantzamendik. "Horregatik, proiektuari denboran eustea izango da gure helburua. Oinarri sendo batzuk jarriko ditugu; ea epe luzera mantentzea lortzen dugun".

### Proiektu irekia

Gaur-gaurkoz, 22 eta 50 urte bitarteko hamalau emakumek osatzen dute taldea, baina "irekia" da, interesa duen edonorentzat.

Hastapenetan dagoen proiektua izanda, bestalde, aurtun ez lehiatzea erabaki dute, eta helburu nagusia "ikastea" izango da.

Entrenamenduekin hasi dira dagoeneko. Saiok astean bitan (astelehenetan eta ostegunetan) egiten dituzte, kiroldegiko kantuan, Tomas Abadiaren esanetara.

## Munduko Erresistentzia Txapelketan izango da berriro ere Aitzol Arakistain pilotua



Motonautikan aritzen den Aitzol Arakistain pilotuak azaroaren 11tik 15era Indonesian jokatuiko den Munduko Erresistentzia Txapelketan parte hartuko du.

Iaz izan zen lehen aldiz norgehiagokan, baina, azaldu duenez, aurtun ez zuen "inondik inora" bertan egoterik espero. "Otsailean trafiko istripu larria izan nuen eta azkar egin dut hobera, baina ez dut txapelketa puntuagarri bakar batean ere parte hartu. Arrazoi horregatik, gonbidapena jaso izana sorpresa izan da. Dakidanez, gainera, euskal selekzioako ordezkari bakarra izango naiz".

Pilotu debarra berriki hasi da uretan entrenatzen eta "sentsa-zio onekin" dagoela esan du. "Lehiatzeke gogoz nago. Indonesiara joan aurretik Errege Kopa ere badut urrian; ea proba bietan maila txukuna emateko gai naizen".

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

**AVA ASESORIA ARIN**

M. Belen Arrue Lizarralde  
Abokatua

**Zestoa**  
Gesalaga kalea, 22 behe  
943 89 70 99

**Zumaia**  
P. Etxezarreta, 15 behe  
943 11 71 55

Lege zerga, kontabilitate, merkataritza eta lan aholkularitza  
Enpresak / Autonomoak  
Finken administrazioa, jabeen erkidegoak eta higiezin kudeaketa  
**asesoriarin@asesoriarin.com**

## 23 bikote lehiatuko dira Nesken Binakako XII. Pala Txapelketan



Urri hasieran abiatuko da Nesken Binakako XII. Pala Txapelketa-IX. Maite Etxeberria oroimenezkoa eta, Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubeko kideek zehaztu dutenez, 23 bikotek parte hartuko dute lehian. "Hamar bikote lehen mailan ariko dira eta beste hamahiru, berriz, bigarrenen. Normalean, hogeik bikoteren bueltan ibiltzen gara; beraz, aurten jokalaria gehiago izanda, pozik gaude", azpimarratu dute.

Deba, Mutriku, Elgoibar, Zumaia, Zarautz, Oiartzun, Zizurkil eta Andoaingo 46 emakume osatzen dute jokalarien taldea eta "emozioz beteriko" norgehiagokak ikusteko aukera izango dela uste dute antolatzaileek. "Aurten aldaketak egin dituzte bikoteen osaketan eta txapelketan partida politak eta orekatuak aurreikusten ditugu".

### Finala abenduaren 14an

Egutegia ere zehaztuta dago. Urriaren 3an izango da lehen hitzordua eta, dena ondo bidean, abenduaren 14an egingo da finala. Partidak ostegun eta igande guztietan jokatuko dira.

## Paraolimpiar Jokoetatik esku hutsik itzuli da Amagoia Arrieta



Paraolimpiar Jokoen lehen fasean ahaleginak eta bidegin bazituen ere, ez zuen hura gainditzeko aukerarik izan Boccian aritzen den Amagoia Arrieta kirolariak. Hala ere, pozik azaldu da BC1 kategorian erakutsitako mailarekin. "Oroitzapen ederrak dakartzat Paristik eta lehian ere nahiko gustura ibili naiz".

Bere lehen Paraolimpiar Jokoak izan arren, "lasai" jokatu zuen norgehiagoka. Debuteko partidaren Aurelie Aubert frantziarra izan zuen aurkari eta, gutxigatik bada ere, garaipenak ihes egin zion. Hiruna berdindu zuten lehia, baina berdinketa haustean aurkariaren alde geratu zen markagailua (1-2). "Zentimetro gutxi batzuegatik galdu nuen partida. Duela gutxira arte neuk menderatzen nuen, baina gauzak zeharo aldatu dira orain. Partida irabazten didan lehen aldia da".

Bigarren partidaren Yee Ting Jerilyn Tan singapurtarraren aurka aritu zen Arrieta. Txapelketan aurrera egin nahi bazuen, irabazi beharra zeukan, baina ez zuen jokoa asmatu; 1-5 galdu zuen partida eta, hortaz, ezin izan zuen Paraolimpiar Jokoetan garaipena lortzeko ametsa bete.

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**k**  
**kutxabank**

**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

# Michael Granberryren 'Les bêtes' filma nagusitu da Animadegan



Irailaren 4tik 7ra hamazazpigarrenez ospatu den Animadeba jaialdiari esker, nazioarteko animazioaren topagune izan da berriz Deba. Jaialdiaren zutabe diren bi sailetan lehiari aritu diren lanen artean, Michael Granberryren *Les bêtes* ekoizpen britainiarra nabarmendu da. Aurten, gainera, EITB gala ere ospatu dute estreinakoz; Isabel Herguera zinemagile donostiarraren lana aitortu dute bertan.

Argazki gehiago:




Nazioarteko lehiaketari dagokion sari banaketarekin eta Anariren kontzertuarekin eta Mario Azurza DJ-aren emanaldiarekin, irailaren 7an eman zitzaion amaiera Animadebaren 17. edizioari. Irailaren 4tik 7ra bitartean ospatu da jaialdia eta, eguraldiak askorik lagundu ez duen arren, antolatzaileek azpimarratu dute aurtengoa izan dela "orain arteko jendetsuena". Beste behin ere, tailerrak, kontzertuak, ikuskizunak eta beste hainbat jarduera izan dira aukeran egitarauaren baitan.

Hamar izan dira Sail Ofizialean parte hartu duten filmak, eta Michael Granberryren *Les bêtes*-i eman diote sari nagusia, "bere birtuosismo apokaliptiko eta ameslariagatik eta, maitasunez, iraganeko maisuak gogorarazten dizkiguten izakiz osatutako mundu sinesgarri bat sortzeagatik". Bestalde, aipamen bereziarekin aitortu du epaimahaiak Anna Sammoren *The wild tempered clavier* lana. Carla Melo Gampert zinemagilearen *La perra* filmak lortu du gidoi onenaren saria eta publikoak *Les pieds dans l'eau* saritu du.

Zuzendari Berriak Sailean, berriz, Mansi Maheshwariren *Bunnyhod* lanak irabazi du EHU sari nagusia, eta epaimahaiak Cheyenne Goudswaard zinemagilearen *Ik ben hier-I am here* filmari eman dio aipamen berezia. Work In Progress deritzon sailean, bestalde, WIP profesionalak proiektu onenaren saria Anna Pantinanten eta Sergi Sanchezen *Extasis del no* lanak irabazi du. Elia Serranok lortu du WIP talentu berriak proiektu onenaren saria *Tarta* filmarekin. Berria Saria, azkenik, Marramiau sorkuntza taldeak irabazi du, *Argizagi* lanari esker.

## Omenaldia

Halaber, jaialdiaren baitan, Isabel Herguera artista eta sortzaile donostiarra ere omendu dute; irailaren 6an egin zen EITB galan, EITB saria jaso zuen erakunde bereko Vanesa Fernandez Kultura eta Euskara zuzendariaren eskutik. Gala borobiltzeko, Hergueraren bi lan proiektatu zituzten Kutxa Zurian.



# “Sormen lanean zentratu nahi dut berriro; horretan buru-belarri jartzeko asmoa daukat”

AMAIA IRIONDO LOZANO • Aktore eta sortzailea



Artista izatetik bizi ez den arren, arte eszenikoak eta musika biziki maite ditu Amaia Iriondok (Deba, 1996). Sormen esparru ezberdinetan aritzen da eta, agertokian oso gustura sentitzen bada ere, publikoarentzat ikusezinak diren bestelako lan batzuetan ere asko gozaten duela dio. Besteak beste, irailean Donostian estreinatu berri den *La Revoltosa* zarzuelan parte hartu du, Encarna pertsonaia nagusia interpretatuz.

**A**maia Iriondok txikitatik amesten zuen artista izatearekin, baina denborarekin ideia horrek indarra galdu zuen eta beste bide batzuetatik jarraitu zuen. Aitortu duenez, beranduxeago, bere bizitzako unerik zailenetako bati aurre egin behar izan zionean, hain justu, kantua eman zion aurrera jarraitzeko grina. Musika ikasketekin segitu zuen kontserbatorioan eta bazirudien bere ibilbidea hortik bideratuko zuela, baina antzerki zaletasuna piztu, eta arte dramatikoak ikastea erabaki zuen gerora. Ordutik, hamaika saltsatan ibili da debarra: antzerkian, zarzuelan, telebistan, zinemian...

## **Urteak daramatzazu arte eszenikoetan murgilduta. Noiztik edo nolatan hasi zinen esparru horretan?**

Nik esango nuke betidanik izan dudala antzezpenerako grina. Musikari dagokionean, umetan hasi nituen musika ikasketak, beste askok bezala: oso txikia nintzela biolina jotzen hasi nintzen, gero gitarra jotzera pasa nintzen eta, ondoren, kantua azaldu zen nire bizitzan. Kantua, egia esan, nire bizitzako momentu kritikoa batean agertu zen; aurrera egiteko oso lagungarria izan zen niretzat.

## **Non hasi zinen kantua ikasten? Deban bertan?**

Bai, Debako Musika Eskolan hasi nintzen, Teresa Alberorekin. Eta, gutxien espero nuenean, Bilboko Juan Crisostomo Arriaga Musika Kontserbatoriorako hautaprobak egitea gomendatu zidan. Zeharo harrিতuta geratu nintzen, izan ere, inoiz ez nukeen pentsatuko nire ahotsagatik nabarmenduko nintzenik. Gaia aitarekin komentatu nuen eta berak, inolako zalantzarik gabe, musika ikastera animatu ninduen; beraz, mundu horretan murgiltzea erabaki nuen.

## **Zenbat urte egin zenituen Bilboko kontserbatorioan?**

Sei urtez aritu nintzen bertan ikasten. Baina, tamalez, ez nituen ikasketak amaitu; karrera bukatzeko seigarren maila egitea falta zait. Kontserbatorioan ikasten ari nintzen bitartean, Arte Eszenikoetako ikasketekin ere hasi nintzen eta... garai hartan ezinezkoa zitzaidan bi gauzak uztartzea.

## **Hortaz, bata edo bestea aukeratu behar izan zenuen?**

Eraikin berean daude kontserbatorioa eta Dantzerti Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola eta, kontserbatorioko giro zorrotzetik eta zurrunetik harago, Dantzertin bestelako giro bat zegoela ikusi nuen. Iruditu zitzaidan





hautzaroan artista izan nahi zuen Amaia hari bere bidea egiten utzi nahi banion, Dantzertin hasi beharko nuela ibilbidea; horrek erakarri ninduen, hain zuzen. Eta begira nolakoa den bizitza. Kantagintzan nire ibilbidea hasi nuenean, uste nuen antzerkia ona izango zela nire curriculum osatzeko, baina azkenean antzerkiak maitemindu egin ninduen. Eta horregatik erabaki nuen nire ibilbidea arlo horretara zuzentzea edo bideratzea. **'La Revoltosa' zarzuelan Encarna pertsonaia nagusia interpretatzen ikusi zaitugu, irailaren 14an eta 15ean, Victoria Eugenia. Nolako esperientzia izan da?**

Victoria Eugenia bezalako antzoki garrantzitsu batean antzeztea plazera da beti. Oholtza sekulako profesionalekin partekatu ahal izan dut; ez bakarrik etxeko profesionalekin, baita kanpotik etorri direnekin ere, eta, egia esan, haiengandik asko ikasteko aukera izan dut. Esperientzia polita eta baliagarria izan da oro har. Bestalde, zarzuela ikustera etortzen den jendea oso-oso fidela da eta aretoa jendez beteta egon da oraingoan ere. Estreinaldiaren egunean, adibidez, bost aldiz irten behar izan ginen agertokira ikus-entzuleak agurtzera; publikoa pozez zoratzen zegoela esango nuke

**“Iruditu zitzaidan hautzaroan artista izan nahi zuen Amaia hari bere bidea egiten utzi nahi banion, Dantzertin hasi beharko nuela ibilbidea”**

eta ikuskizunak berak ere oso kritika onak jaso ditu. Horiek hala, aje emozionalak luzaroan iraungo digula uste dut [irribarrez].

**Ez da edonolako erronka izan, ezta?**

Ez, Donostiako Sasibil elkarte lirikoak 25 urte betetzen ditu aurten eta, urteurrenaren harira, zarzuela obrarik arrakastatsuenak eskainiko ditu. *La Revoltosa* zarzuelan, esate baterako, ibilbide luzeko jendea ari da lanean eta horien artean jardun ahal izatea ikaragarria izan da niretzat. Arkaitz Mendoza musika zuzendaria, Joxean Garcia eszena zuzendaria eta Antonio Torres baritonoa daude, besteak beste, partaideen artean.



Arg.: ASIER CORERA

**“Iaz Sasibili esker izan nuen zarzuela munduan debuta egiteko aukera; ez edonola, gainera, 'La Dolorosa' obrako protagonista izan bainintzen”**

**“Nire ibilbide profesionalari baino lehentasun handiagoa eman nahi diot nire osasun mentalari, eta neu izateari”**

### **Eta nolatan sortu zaizu horrelako lan batean parte hartzeko aukera?**

Behin baino gehiagotan izan dut Sasibilekin lan egiteko aukera eta, elkartean urtebete bakarrik daramadan arren, asko ikasi dut. Iaz Sasibili esker izan nuen zarzuela munduan debuta egiteko aukera; ez edonola, gainera, *La Dolorosa* obrako protagonista izan bainintzen. Pentsa zer ilusio egin zion gure aitari, Victoria Eugenia antzokiko hiru palkotarako sarrerak erosi baitzituen.

### **Noiz hasi zinen Sasibil elkartearekin elkartanean?**

Betidanik asko gustatu izan zait zarzuela eta, horrexegatik, Dantzertiko sarrera probetan zarzuela lan bat abestea erabaki nuen; interpretaziorako joko handia ematen duen genero musikala dela iruditzen zait. Garai hartako Dantzertiko zuzendari Ekaitz Gonzalez asko gustatu zitzaion nire proba, eta, hain justu, Gonzalez Sasibileko kide ere bada. Horiek hala, urte batzuk beranduago, berak gonbidatu ninduen Sasibilen *La Dolorosa* obraren castingera aurkeztera eta, proba gainditu ostean, Nicasiaren papera egin nuen.

### **Zarzelarekin lotutako beste proiektu batzuetan ere parte hartu izan duzu azken urteotan, ezta?**

Bai, *La corte del faraon* zarzuelan parte hartu nuen, adibidez, paper txiki bat eginez. Eta, horrez gain, errejidore lanetan, argiztapen kontuetan... ere ibili

izan naiz Sasibilekin. Bestalde, uztailean Donostiako Musika Hamabostalditik ere deitu zidaten eta *Carmen* operan argiztapen lanetan aritu nintzen. Egia esan, esperientzia zoragarria izan zen, maila profesionalan sekula izan dudan onenatarikoa.

### **Beste arlo artistiko batzuk ere ezagutu edo landu dituzu.**

Ikus-entzunezkoei dagokienean, *Las pelotaris 1926* telesailean rol txiki bat jokatu dut, eta publizitatean pare bat kanpainatan parte hartzeko aukera ere izan dut. Baina esango nuke ikus-entzunezkoen arloan lan gehiago egin dudala produkzio lanetan interpretazioan baino; besteak beste, *Itxaso* telesailaren ekoizpenean parte hartu nuen. Orokorrean, bestalde, uste dut nire burua antzerkira bideratuta egon dela urteotan, eta ez hainbeste ikus-entzunezkoetara. Antzerkian lan asko egiteko aukera izan dut eta, gainera, nire konpainia propioa (Ibilka) izatea ere lortu nuen. Horri esker, sormen prozesu oso bat lantzeko eta bestelako gai batzuetan sakontzeko aukera sortu zitzaidan.

### **Eta antzerki konpainia propioarekin zer nolako lanak sortu edo taularatu zenituen?**

Berez hiru lan sortu genituen, baina horietako bi bakarrik taularatu genituen. Tamalez, *Goizetan gabon* gure azken proiektua ezin izan genuen estreinatu. Lan polita zen, baina, zoritxarrez, ez genuen baliabide nahikorik lortu



modu duin batean ekoizteko, eta pena bat izan da lana alde batera laga behar izatea. Antzezlanak gai serio bat (osasun mentalarena) lantzen zuen, umoretik, eta oso berezia zen niretzat. Gainera, sormen lan guztia neuk egin nuen: eszenografia, jantziteria, gidoia... dena. Ate asko jo nituen obra estreinatzeko ilusioz, baina erantzunik ez jasotzeak pixka bat desilusionatu ninduen. Lan horrekin Eszenabide bekaren finalera ere iritsi ginen, baina, zoritxarrez, lan bakarrak lortzen du beka eta gurea bigarren postuan gelditu zen. Gogorra egin zitzaidan, frustrazioa eragin zidan, eta oraingoz alboratuta daukat gaia.

#### **Nolako izan zen antzezlan hori sortzeko prozesua?**

Euskaraz sortu dudana lehenengo antzezlan izan da eta, egia esan, niretzat orain arte egin dudana lan prozesurik politena izan da. Behar artistiko batetik sortutako lana izan zen, baita mingarriena ere pertsonalki. Antzezlan autobiografia moduko bat ere bada, eta ez zen erraza izan nire barrua irekitzea eta hori guztia sormen lan batean irudikatzea eta jendaurrean aurkeztea; azken finean, sentitzen nuen guztia askatzeko eta adierazteko beste modu bat izan zen.

#### **Atzera begiratzuz gero, gauzak nahi bezala egin dituzula esango zenuke?**

Galdera hori duela urtebete egin izan balidate,

ezetz erantzungo nukeen. Orduan bestelakoa zen planteamendua, baina orain iruditzen zait nire bizitzak behar zuena aukeratu nuela; uneotan, nire ibilbide profesionalari baino lehentasun handiagoa eman nahi diot nire osasun mentalari, eta neu izateari. Egia esan, etxetik hurbil (Donostian) bizitzeak lasaitasun handia ematen dit eta zoriontsu naiz urtean egiten ditudan lau proiektuekin eta noizbehinka sortzen diren gauzatxoekin. Oreka moduko bat izatea lortu dut, eta ez zait burutik pasatu ere egiten oreka hori jokoan jartzea arrakasta lortzeko.

#### **Posible da sormenari lotuta dagoen lanen bat ogibide izatea?**

Oso zaila da eta beste lanpostu batzuk ere izan ditut. Txo-txo ngiloen Tolosako Nazioarteko Zentroan egiten dut lan orain, antzerkigintzaren bueltan, baina pedagogia arloan.

#### **Zer asmo duzu datozen hilabete edota urteetarako?**

Iruñeko AGAO elkartearen eskutik, Pablo Sorozabalen *Don Manolito* zarzuelan Doña Candida pertsonaia nagusia interpretatuko dut; azaroaren bukaeran izango da emanaldia, Iruñeko Gayarre antzokian. Ekaitz Gonzalez eskertu iritsi zait aukera hori ere; egia esan, asko zor diot Ekaitzi, ate asko zabaldu dizkit eta. Bestalde, urte berriarekin batera sormen lanean zentratu nahi dut berriro; horretan buru-belarri jartzeko asmoa daukat.

# Eliza nagusiko sakristiako zaharberitze lanak

IÑAKI ELOSUA • Debako alkate ohia

Sakristia barrokoa izan zen Debako Santa Maria elizan egin zen azken arkitektura lan garrantzitsua. Lazaro de Lizardik egin zuen obra, 1713. eta 1714. urteen bitartean, eta Francisco de Iberok diseinatu zituen altzariak, 1770. urtean. Berritze lanak egin behar izan ziren bertan 1986an, alkate nintzela, eta lan horiek ekarri nahi nituzke gogora oraingoan, proiektua zergatik eta nola egin zen azalduz.



Iñaki Elosua Elu Debako alkate zeneko artxiboko irudi batean. Lau urte egin zituen karguan (1983-1987).

**S**akristia ikustera eraman ninduten halako batean, barrura sartu eta harrিতuta geratu nintzen zer egoeratan zegoen ikustean: erabat hondatuta zegoen, lizunak janda. 1986an izan zen, ni alkate nintzela. Eta gogoan dut azkar egin nuela gestioa Gipuzkoako Foru Aldundian; oso erraza izan zen, gainera, han baitzegoen Manu Izagirre diputazioko ondare zuzendaria.

Manuk eta biok lehenagotik ezagutzen genuen elkar, eta lagun handiak ginen. Izan ere, alde zaureratik, Sasiolako santutegiko teilatua behea jota zegoenean, hura konpontzeaz arduratu behar izan ginen eta bera etorri zen laguntzera. Oso lan zaila izan zen, inor ez baitzen baselizaz arduratzen, eta gotzainak ere ez zuen ezer jakin nahi: han ez zegoen klerorik, ez zegoen dirurik... eta gai horrekin zerikusia zuten kontuekin egin ginen lagun, hain zuzen, Manu eta biok. Beraz, eliza nagusiko sakristiaren egoera ikusi nuenean, arazoaren berri eman nion, eta hark gogotsu hartu zuen bere gain eginkizuna; aldundia egin beharreko lan guztiak ordaintzen ahaleginduko zela esan zidan.

Egindako gestioa udaletxean aurkeztu nuen, baina oposiziokoek erabat baztertu zuten gaia. Guztiak aldundiak ordainduko zuela ikusita, eta ez udalak, gaia baztertuta laga zuten. Eta alderdiko



Hirigintza Batzordeko lehendakari Elias Olalde eta Amaia Zuazo Kultura arduradunak ere baztertu egin zuten. Beraz, adostu genuen foru aldundiak ordainduko zuela zaharberritze proiektua eta ni arduratuko nintzela sakristiako lanen jarraipena egiteaz. Bestela, ez litzateke obra gauzatuko.

### **Kalteen zergatia**

Zaharberritze lanei ekiteko, diputazioak bi arkitekto izendatu zituen (Genoveva eta Lasarte) eta haiek argitu zuten zergatik zegoen hain hondatua eta lizunez bete sakristia: bada, espazioa arnasik hartu gabe egon zen denbora batez, eta horrek eragin zituen kalteak. Aireztapenik ez zegoenez, hezetasun handia sortu zen, eta lizuna ere bai, ondorioz. Horra hor bi arkitektoek arazoaren muinaz eman zuten azalpena.

Berez, sakristiak bazuen goian leiho bat, arnasa hartzeko, baina leiho haren atzean elizako areto bat prestatu zuen Anes Arrinda parrokoak, haurrentzako zinema eta abar bertan eskaintzeko helburuz izugarritzko lana eginez. Eta, atzealdean gune hura atontzerakoan, goiko leihoa itxi egin zuten, sakristia aireztatzea galaraziz. Hura izan zen, hain zuzen, akats bakarra.

Horiek hala, arkitektoen jarraibideak kontuan hartuta, leiho hura berriz ere zabaltzea izan zen lehenengo eginbeharra; Anes Arrindarekin hitz egin nuen, arazoa azaltzeko, eta hark erabakia onartu, arazorik gabe. Eta, leihoa askatzearekin batera, apaizen aulkiak dauden lekutik elizaren kanpoalderaino iritsiko zen hodi bat ere jarri zuten azpian, aireztapen-prozesua erabat bermatuta gera zedin.

**"Lanak 1986an hasi eta 1987an amaitu ziren. Sakristia zaharberrituaren inaugurazioa kiroldegi berriaren lehen harria jarri zuten egun berean egin zen, 1987ko otsailean"**



## "Izugarrizko lana izan zen eta oso dotore geratu zen guztia. Proiektuak garaiko 16 milioi pezetako kostua izan zuen"

Zaharberritze lanak Jose Ignacio Urbietak egin zituen; artista bat zen, denok ezagutzen genituen berak sortutako herriko buruhandiak eta erraldoiak ere, besteak beste, eta halako lan edo eginkizun bat bere gain hartzeko desiatzen zegoen. Gainera, proiektua lagungarria izango zen bere familia ugaria aurrera ateratzeko... Beraz, hari agindu nizkion lanak.

Sakristian zegoen material guztia klaustroa atera behar izan zuten lehenengo; pieza bakoitzari zenbaki bat jartzen zioten, banan-banan, gero nora itzuli eta non kokatu behar zuten jakiteko. Klaustroan laga zen dena, bertan lehor zedin, eta ondoren pieza guztiak barnizatu egin zituzten barrura eraman

## "Jose Ignacio Urbietak egin zituen berritze lanak. Bestalde, Eduardo Galarragak egin zituen igeltserotza-lanak, eta arotzak txurrukatarrak izan ziren"

aurretik... Urbietak soldatu zuen guztia, eta izugarrizko lana izan zen.

Bestalde, herriko beste zenbait langilek ere parte hartu zuten prozesuan. Eduardo Galarragak egin zituen igeltserotza-lanak, adibidez, eta arotzak ere debarrak izan ziren, txurrukatarrak.

Lan handia egin zen sakristian eta zaharberritze proiektuak garaiko 16 milioi pezetako kostua izan zuen; hori diru kopuru handia zen urte haietan.

### Urtebeteen

Zaharberritze lanak hasi eta bukatu zituzten, beraz, eta sakristiako lurra ere berritu zen. Esango nuke oso dotore geratu zela dena, eta hala egongo da oraindik ere.

Datak ere ondo gogoratzen ditut: lanei 1986an ekin zitzaien eta 1987an bukatu zen proiektua, azkar egin zen guztia. Hain justu, 1987ko otsailean, Imanol Murua diputatu nagusia eta Santiago Aizarna diputatu nagusi ohia Debara etorri ziren, kiroldegi berriari lehen harria jartzera eta, bide batez, meza entzun ondoren sakristia inauguratzera ere bai.

Sakristian bertan ginela, Muruak galdetu zidan nolatan ez nion Euskal Telebistari esan egun hartan Debara etortzeko, albistearen berri eman zezaten. Bada, ez nintzela gogoratu esan nion... Pena bat ez egin izana!

Urteak pasa dira ordutik, eta gai honi buruz idatzi diren zenbait albistek edo artikuluk datu okerrak eman dituzte. Horregatik partekatu nahi izan dut irakurleekin berritze lanei buruz dakidana, informazioa gorde eta gal ez dadin.

# “Zuzenekoekin gozaten, sortzen eta musika ikasten jarraitu nahiko nuke, inolako presarik gabe”

AITOR HUERGO ZELAIA • Musikaria



Musika irakaslea da ogibidez eta bere denbora librearen zati bat ere musikagintzari eskaintzen dio Aitor Huergok (Bilbo, 1977); bi disko plazaratu ditu, besteak beste, dagoeneko. Jaiotzez bilbotarra da, baina Endoia auzoko Beliosoro Goikoa baserrian bizi da 2007az gerotik. Irakasle dihardu gaur egun Mendata institutuan.

**U**me-umetatik gustatu izan zaio abestea eta, laburbildu duenez, ez du bizitza musikarik gabe ulertzen. Gitarra lagun, aspaldi hasi zen bere lehen abestiak sortzen, baina aitortzen du bai lanagatik, bai familiagatik... musika beti geratzen zela eremu intimoan. Duela urte batzuk, ordea, goitik beherako aldaketa bat egin eta "modu serioago batean" murgildu zen sormen lanean. Horren ondorio dira Unai Mimenza txikitako lagunarekin etxean bertan bakarka grabatu dituen bi diskoak.

## Noiztik datorkizu musikarekiko zaletasuna? Txikitatik gustatu izan zaizu?

Ez naiz umetatik musika eskolara joan den horietako bat izan, baina musika barru-barrutik bizi izan dut beti. Argi nuen musikan aritu nahi nuela eta ahal nuen bakoitzean nire kabuz sortzen nituen abestiak. Institutuko garaian, adibidez, gitarra ikasten hasi nintzen; ohiko metodo tradizionalaz harago, bestelako bide batzuk ere bazeudela ikusi nuen eta musika horrela ikastea askoz erakargarriagoa iruditu zitzaidan. Gero Musika Hezkuntza ikasi nuen eta ondorengo ia hogei urteetan musika irakasten aritu nintzen.

## Musika eskolak emateaz gain, hurrengo urteetan zer harreman izan zenuen musikagintzarekin?

Noizean behin lagun batzuekin elkartu eta zerbait





**“Buruan nuen guztia egiteko gai nintzela ikusi nuen; denbora kontua zen dena, eta ez gaitasun kontua”**

**“Atzera begiratzuz gero, bigarren lan hau ('Ganbarako doinuak') zentzu guztietan irekiagoa dela esango nuke”**

jotzeko geratzen ginen, baina lanez gainezka ibiltzen nintzenez, ez neukan ezer formalik egiteko aukerarik; musika eremu pribatuan bakarrik mantentzen nuen zerbait bihurtu zen.

**Nolatan eman zenuen esparru pribatu horretatik publikora ateratzeko pausoa?**

Beti izan dut talde bat sortzeko gogoia, baina lanarekin, familiarekin... ez zen posible izan amets hori betetzea. Abiapuntua lagun batek esandakoa izan zen, kanta propioak idazten hastea iradoki baitzidan. Garai hartan oso lanpetuta nenginen eta etxean bi haur txiki genituen, beste hainbat ardura edukitzeaz gain. Egia esan, ez nion inoiz nire buruari planteatu lagun hark proposatu edo iradoki zidana; ez nuen uste sortzeko gai nintzenik. Izan ere, abestiak idazten hasten nintzen, baina kanta haiek han gelditzen ziren, nonbait ezkutatuta, partekatu gabe.

**Eta noiz egin zenuen jauzia?**

40 urte bete nituenean (2017an) eman nuen jauzi hori; une hartan erabaki nuen nerabezaro garaian neukan pasio hari berriz ekitea. Diotenez, adin horrekin "40 urteko krisia" deritzona pairatzen omen dugu eta... nolakoak diren gauzak; krisi horrek musikara gogotsuago eta indartsuago itzultzen lagundu zidan. Buruan nuen guztia egiteko gai nintzela ikusi nuen; denbora kontua zen dena, eta ez gaitasun kontua. Hori

ikusirik, ordura arte irakasle lanetan ari nintzen Bilboko eskolan eszedentzia eskatzea erabaki nuen eta, ondoren, ordezkoen esleipenetan, Azpeitian musika irakasle jardutea egokitu zitzaidan; hori 2018an izan zen.

**Zer garrantzi izan du norabide aldaketa horrek zure musika ibilbidean?**

Oso aberatsa izan zen. Azpeitian, adibidez, Iosu Azkue ezagutu nuen eta hark Mainlander rock taldearen entsegu batzuetara gonbidatu ninduen; proiektua asko gustatu zitzaidan eta taldean ere ibili nintzen.

**Eta zer gertatu zen bakarkako lan edo proiektuarekin?**

Bakarkako proiektua eta taldearena aldi berean uztartzeko aukera izan nuen. Gainera, 2022a oso urte emankorra izan zen niretzat, bi disko grabatu ahal izan baintuen: bata bakarka (*Barruko paisaiak*, autoekoiztua), eta bestea Mainlander taldearekin (*Mainlander*, Gaztelupeko Hotsak).

**Nolakoa da 'Barruko paisaiak' diskoa?**

Oso lan berezia eta intimoa da, barru-barrutik egindakoa eta, izenburuak dioen bezala, horrela mantendu nahiko nuke. Lan hori zuzenean edo nire Bandcamp orrialdean bakarrik aurkitu daiteke; hau da, ez dago streaming plataformetan. Kanta horiek entzun nahi dituenak, beraz, nolabaiteko ahalegina egin beharko du.





**Berriki kaleratu duzu zure bigarren bakarkako lana: 'Ganbarako doinuak' (autoekoiztua). Zer desberdintasun dauzka disko berriak?**

Atzera begiraturaz gero, bigarren lan hau zentzu guztietan irekiagoa dela esango nuke. Eboluzionatu egin dut musikalki eta hobekuntza prozesu bat izan da. Nire ustez, hain zuzen, diskoa hazte prozesu horren emaitza edo isla da. Baina ez hori bakarrik. Aurrekoan ez bezala, oraingoan lan berria mundura zabaltzeko gogoa izan dut; diskoa streaming plataforma guztietan arki daiteke, baita Arkatza liburu-dendan ere.

**Bestelakoa da soinuari dagokionean ere, ezta?**

Aurrekoaren esentzia bera baldin badu ere, guztiz desberdina da. *Barruko paisaiak* oso biluzia eta intimoa da, nik hala nahi izan dudalako, eta *Ganbarako doinuak* lagun artean osatu dut, instrumentalizazioarekin jantzita. Aurreko ikasturtean Debako institutuan lankide izan nituen Aitor Erkizia (klarinetea) eta Agate Amilibia (biolontxelo) proiektuan parte hartzeko prest azaldu ziren. Oso proiektu bizia izan da hasieratik eta, aurrera egin ahala, are biziago bihurtu da. Adrian Larrañaga nire perkusio irakasleak ere lanaren berri izan zuen eta lagundu egingo zidala esan zidan. Sekulakoa iruditu zitzaidan irakasle batek hori esatea, eta garrantzi handia eman nien bere hitzei. Era

berean, Josu Salegi musikari debarra ere ezaguna nuen blues tailerretik eta hura ere animatu zen pare bat abestitan saxofoia jotzera. Eta, gainera, hiru abestitan Mikel Markezen kolaborazioa ere izan dugu; horietako bitan (*Zabala 29*, *barrio de currelas* eta *Willi balea*) nabarmen entzuten da bere ahotsa eta bestean (*Lorea beti lore*) koroak egiten ditu.

**Zer transmititu nahi izan duzu azken lan hau osatzen duten abestietan?**

Abiapuntua nire bizipenak eta gertuko pertsonenak izan dira, baina bizipen horiek pertsonalak diren arren, esango nuke abestietan irudikatu nahi izan ditudan sententzioak eta emozioak unibertsalak direla.

**Nola entzun beharko litzateke diskoa? Gomendiorik bai?**

Gaur egun, banaka entzun daitezke abestiak, baina niretzat oso garrantzitsua da ordena jarraitzea. Patxadaz egoteko denbora bat hartu, diskoa jarri eta doinuei barneratzen uztea da nire gomendioa.

**Etorkizunera begira, zer proiektu daukazazu?**

Hirugarren diskoa izan daitekeenaren abestien zirriborroak idazten eta lantzen hasita nago. Dena dela, horrek luze joko du. Izan ere, kaleratu berri dugun bigarren lan hori aurkezteko zuzenekoekin gozatzen, sortzen eta musika ikasten jarraitu nahiko nuke, inolako presarik gabe.

# Auto elektrikoak bogan

AUTO ELEKTRIKOEN SALMENTA GORANTZ DOA MUNDUAN

Iraunkortasunaz eta karbono-isuriaren murrizketaz gero eta kontzienteagoa da gizartea eta ibilgailu elektrikoak etorkizuneko mugikortasunerako irtenbidetzat nabarmentzen ari da. IEAk, Nazioarteko Energia Agentziak emandako datuen arabera, ia hamalau milioi auto elektriko saldu ziren munduan, aurreko urtean baino %35 gehiago. IEAren kalkuluen arabera, 2030erako merkatu gehienetan prezio baliokideak izango dituzte errekontzako autoak eta elektrikoak eta 2035erako hiru autotik bi elektrikoak izango dira.

## Zenbat auto elektriko mota daude merkatuan?

Gaur egun, darabilten teknologiaren arabera, hiru ibilgailu elektriko mota nagusi daude merkatuan: Ibilgailu elektriko purua/bateriaduna, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (errekontza motor txiki bat du bateriak kargatzeko) eta ibilgailu hibrido entxufagarria (propulsio elektrikoak eta konbentzionalak uztartzen ditu).

## Zenbat balio dute?

Espainiar estatuan, lau plazako auto elektrikoak merkeak 18.000 euro ingurutan saltzen dira, batzuek besteak, berriz, 34.000 euroren bueltakoa da. Baina auto elektrikoaren kostua kalkulatzeko garaian, beste



Auto elektrikoentzako kargalekua Azitaingo industrialdean (Eibar). DKT

hainbat faktore ere hartu behar dira aintzat, hala nola, erregaia eta mantentze-lanak. Erregaiari dagokionez, auto elektrikoaren 100 km-ko kostua 2-3 euro ingurukoa da eta gasolinazkoarena, berriz, 9-12 euro bitartekoa. Mantentze-lanen kostua ere dezente txikiagoa da auto elektrikoaren kasuan, gasolinazkoa, diesela edo hibridoak baino, %29, %21 eta %25ekoa, hurrenez hurren. Hortaz, hasierako erosketaren gailentzea 6-7 urtean amortizatu daiteke.

## 2025ERAKO HIRU AUTOTIK BI ELEKTRIKOAK IZANGO DIRA, IEA-REN ARABERA

## Zer nolako autonomia du?

Modeloa eta bateriaren arabera da. Halaber, modelo berriek karga bakoitzeko 250-500km bitarteko autonomia izan ohi dute.

## Zenbat kargaleku daude Debabarrenean?

Auto elektrikoentzako kargalekuak daude bailaran, besteak beste, Eibarren Azitaingo gasolinera eta industrialdekoa edo Mercadona, Eroski eta Aldi supermerkatuetakoa edota Repsol gasolinera eta Mercadonakoa Elgoibarren.

## Kargaleku publikoak, pribatuak eta komunitarioak

Kargalekuak erabilera publikoko lekuetan daude eta edozeinek erabili ditzake baina, oro har, auto elektrikoak gauzak eta etxean kargatzen dira.



Ibilgailuen kargen % 90-95 garaje partikular edo komunitarioetan egiten da, ahal dela, gauez, elektrizitatearen kostua txikiagoa delako.

Karga-puntu pribatuen kasuan, instalazioa 750-1000 euro bitartean kosta liteke. Kargalekua komunitarioa denean, berriz, kasuistika askotarikoa da eta aukeratu den instalazio motaren arabera aldatzen da kostua. Debegesak Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioaren inguruko eskuliburua diseinatu zuen. Gida honen helburua da auzo-komunitateetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioen prozesuari eta inplikazio nagusiei buruzko informazioa ematea, horiek aplikatzeko egin beharreko urratsak zehaztuz.

#### **Diru-laguntzak**

2021ean Espainiako Gobernuak Moves III plana onartu zuen auto elektrikoaren eraketak eta kargagailuen instalazioak diruz laguntzeko eta deialdia 2024ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean. Kontsultatu laguntzak Energiaren Euskal Erakundearen webgunean.

**DEBABARRENEAN 12  
KARGALEKU ELEKTRIKO  
DAUDE, ZORTZI  
EIBARREN ETA LAU  
ELGOIBARREN**



Aitziber Cortazar, Lorea Esnal eta Maria Otamendi. DKT

## **Energia Bulegoa debabarrendarren zerbitzura**

Duela hiru urtetik martxan da Debabarreneko Energia Bulego Birtuala, 2030 Agendaren baitan, bailaran energia berriztagarrien erabilera indartzeko helburuz. Bertan, aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen diete herritarrei nahiz enpresei, debalde.

Energia berriztagarrien arloan dauden aukerak (fotoboltaikoa, termikoa, geotermia, aerotermia, biomasa...), teiltatua birgaitzeko moduak edo berogailu sistemak, kontsumoa eta fakturak optimizatzeko bideak eta energiari lotutako beste hamaika konturen berri ematen dute. 2021etik 70 kontsulta baino gehiago erantzun dituzte eta 100 herritar eta enpresa baino gehiagori lagundu diete instalazioak bideratzen edo kontsumoa murrizten.

#### **Online eta presentzialki**

Bulegoak goizero eskaintzen du zerbitzua, online, telefono bidez edota presentzialki. Informazio gehiago Debegesaren webgunean edo 943 82 01 10 zenbakira deituta.



# Iraila / Urria

## IRA. 27 (OSTIRALA)

### ELKARRETARATZEA

**19:30** Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

## IRA. 27-28

### EUSKAL JAIA

Bi eguneko egitaraua. Xehetasun guztiak ale honetako 11. orrialdean.

## IRA. 28 (LARUNBATA)

### TAILERRA

**10:00** Habi-kutxak erabiltzeko tailerra. Lastur. Informazioa: [geoparkea.eus](http://geoparkea.eus)

## IRA. 29 (IGANDEA)

### ZINEMA

**19:00** 'Aftersun'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## URR. 1 (ASTEARTEA)

### IRAKURKETA KLUBA

**19:00** 'Mi vida en la carretera' (Alpha Decay). Udal liburutegia.

## URR. 5 (LARUNBATA)

### MERKATU TXIKIA

**09:30** Estalitako pasealekua.

## URR. 6 (IGANDEA)

### MENDI IRTEERA

**08:30** Larrun-Ibardin. Burdin Kurutzen eskutik. Pasealeku estalia.

### ZINEMA

**19:00** 'Los que se quedan'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## URR. 7 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

## URR. 10 (OSTEGUNA)

### IRTEERA

**08:40** Oleta-Lekeitio. Arbil Elkarte Sozialaren eskutik. Autobus geltokia.

## URR. 12 (LARUNBATA)

### GAZTE ASANBLADEN TOPAKETA

Eskualde mailan antolatutako egitaraua: mahai-ingurua, bazkari herrikoia, umorezko ikuskizuna, kontzertuak...

## URR. 13 (IGANDEA)

### IPIUIN KONTAKETA

**17:30** Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

## ZINEMA

**19:00** 'La tierra prometida'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## URR. 17 (OSTEGUNA)

### HITZALDIA

**11:00** 'Reala eta Deba' (Inaxio Kortabarría, Asier Riesgo, David Zurutuza eta Markel Bergara). Kultur Elkarte.

### LIBURU AURKEZPENA

**19:00** 'Zenbat lo' (Iraitz Lizarraga eta Nekane Txapartegi). Kultur Elkarte.

## URR. 18 (OSTIRALA)

### BARRETEGIA

**20:00** Umorezko bakarriketak euskaraz. Kultur Elkarte. Sarrerak 5€: [labur.eus/barretegiadeba1](http://labur.eus/barretegiadeba1)

## URR. 19 (LARUNBATA)

### BISITA GIDATUA

**10:00** 'Marearteko zabal-gunea'. Errotaberri, Sakoneta.

## URR. 20 (IGANDEA)

### ZINEMA

**19:00** 'Yo, capitan'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## URR. 21 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

## URR. 24 (OSTEGUNA)

### TAILERRA

**11:00** Loari buruzko tailerra. Arbil Elkarte.

### MURALISMO TAILERRA

**16:00** 'Art-ivistak eskola ibiltaria'. Deba-Itziarko Talde Feministaren lokala (Osio).

## IKASTAROAK

### KZgunea

Astelehenetik ostiralera, (16:00-20:00). Informazio gehiago [kzgunea.eus](http://kzgunea.eus) atarian.

## DIRUJAGUNTZAK

### Negoio ideia lantzeko edo enpresa-proiektua martxan jartzen laguntzeko

Aurkezteko epea: urriak 11. Informazioa: [debegesa.eus](http://debegesa.eus) atarian.

### Euskara ikasi edo UEUko ikastaroetan parte hartu duten debarrentzat

Aurkezteko epea: urriak 15. Informazioa: [deba.eus](http://deba.eus) atarian.

## LEHIAKETAK

### XIX. Tene Mujika beka

Aurkezteko epea: abenduak 9. Oinarriak: [deba.eus](http://deba.eus) atarian.



### ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

### BURGOA

Irailak 30 / Urriak 1, 2, 3, 18, 19, 20.

### ZALDUEGI

Urriak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

### DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01

BURGOA 667 33 88 90

### Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI

Irailak 28 / Urriak 5

BURGOA

Urriak 12 eta 19

## Jarrai gaitzazu!



[berriketan.eus](http://berriketan.eus)  
Zuhatza Euskara Elkarteak

### HURRENGO HITZORDUAK



[berriketan.eus/agenda](http://berriketan.eus/agenda)

## Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarteak	943 19 13 83	Lurraldebus	900 30 03 40
Debako Udala	943 19 28 40	Correos	943 19 17 99
Itziariko Auzo Udala	943 19 92 55	Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Itziariko Botikina	687 75 67 21
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90
Kiroldegia	943 19 22 62	Gurutze Gorria	943 19 10 32
Euskotren	944 33 33 33	DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22

**Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197**

*Hondartza ondoan  
Uste gustuan zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576  
20820 DEBA

**Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m<sup>2</sup>**

Itziariko kalna  
T.: 943 19 91 00  
F.: 943 19 91 01  
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

[endaneta@mueblesendaneta.com](mailto:endaneta@mueblesendaneta.com)  
[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)

**Uzuri**  
optika audio

**PILARIK GABEKO AUDIFONOAK**  
PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12

**Deba**  
Hertz klinika

Hondartza Kalea, 20  
20820 Deba, Gipuzkoa  
[info@debaklinika.com](mailto:info@debaklinika.com)  
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

**ITURLAN, S.L.**

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfno.-Fax: 943 192 553  
[fontaneriaiturlan@iturlan.com](mailto:fontaneriaiturlan@iturlan.com)

Kolegiatu zkia.: 20001123

**Amaia Esnaola**  
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar  
943 20 72 17 | 660 42 28 08  
[amaia@esnaolaodontologia.com](mailto:amaia@esnaolaodontologia.com)

SUDOKUAK

		6		3			1	
		9			2	6	8	
		8		7				
1					7			4
5				4			2	
						7		8
3				2				6
		1	9				4	

		6	2			5		
			6	1		4	8	
	8		3	4				1
	5	8				2	6	
9		7				8	3	
		4		5	6		1	
		5	9		1	7		
			4	8			5	6
8	2			6				9

3	4	2	9	5	6	1	7	8
6	9	8	1	2	7	5	4	3
1	7	5	3	8	4	9	6	2
8	3	7	5	6	1	2	4	9
9	2	1	8	4	3	7	6	5
4	5	6	7	9	2	3	8	1
5	6	3	4	7	9	8	1	2
7	8	7	2	9	5	1	4	3
4	1	4	9	3	8	6	5	7

9	1	4	7	6	5	3	2	8
6	3	5	2	8	4	1	6	7
2	8	7	1	9	3	6	5	4
1	7	6	9	5	8	4	3	2
5	3	5	2	4	8	7	9	6
4	6	4	3	6	7	8	5	1
7	1	6	9	4	3	2	8	5
3	7	8	5	1	6	9	4	2
4	1	6	2	7	8	5	9	3



**Mikel ITURGINTZA**

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,  
20820 Deba  
T. 943 191 774  
M. 699 975 206  
info@mikeliturgintza.eus



**ALBIZU HARATEGIA**

Lersundi kalea, 27  
943 19 14 47  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ARKATZA Liburudenda**

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**Calbeton**

JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ENGLISH SQUARE**

SCHOOL OF ENGLISH

2024/25 ikasturteko  
matrikulazioa  
zabalik

Sokagin kalea 12, DEBA  
648 268 206  
info@english-square.net

Ezagutu zure herrian dauden taldeak edo egin zure proposamena!

*mendian*

*gurasoekin*

# Eta euskaraz egiten badugu?

*jolasean*

*josten*



Eman izena!

Izen ematea: Urrian zehar  
labur.eus/Zuhatza\_Deba · 943 191 383

Antolatzaileak



Babesleak



 [mintzalaguna.eus](http://mintzalaguna.eus)



**Berriketan .eus**

# Udako argazki lehiaketa



**Animatu eta bidali zure argazkiak!**

*berriketan@berriketan.eus / 632 04 33 22*

**Bidaltzeko epea:** irailak 30

**Epaimahaiaren saria:** Yurrita arrain kontserben produktu sorta eta herriko ekoizle edota sortzaileen lanekin osatutako saskitxoa.

**Publikoaren saria:** Yurrita arrain kontserben produktu sorta.

**Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkeztu ahal izango ditu.**

Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta bidalitako argazkia non ateratakoa den.

**Oinarriak eta bestelako informazioa:** [berriketan.eus](http://berriketan.eus)